



2014-02-21

ELGOIBAR IKASTOLAK INDARREAN DITUEN ASEGURANTZAK

IKASLEENTZAT. Betebeharreko Eskola Aseguruak (1953ko uztailaren 17ko Legea) ikaslearen babesa du helburutzat, kontrako eta ustekabeko egoerei aurre egiteko. Aseguru hau Gizarte Asegurantzako Erregimen Bereziko laguntzen barne dago, eta eskola istripu, gaixotasun edo familiako ezbeharren arriskuak estaltzen die DBH 3.mailatik Unibertsitateko hirugarren ziklorarte ikasten ari diren 28 urte baino gutxiago dituzten ikasleei.

Honengatik, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzan Eskola Asegurua ez da beharrezkoa, Ikaslearen aita/amak edo tutore legalak Gizarte Asegurantzak badu, honek ikastetxean gertatutakoak ere babesten ditu.

Elgoibar Ikastolak, Hezkuntza Sailak nahiz Lan Hitzarmenak agintzen duten betebeharreko aseguruak baditu eta 2008ko maiatzaren 22an, Kontseilu Errektoreari istripu poliza bat egitearen kontsulta luzatu ondoren, ahobatez erabaki zuen ez zuela beharrezkotzat jotzen, ikasleak estalita bait daude (KEko 469. Aktan jasota)

SEGURU ESKOLARRA. DBH 3. MAILATIK GORAKOENTZAT

Baldintza orokorrak

- 28 urte baino gutxiago izatea, eskola aseguruak adin hori betetzen denean ere urte osoan zehar estaldura eskainiko duen arren.
- Espainian legalki bizi den espainiarra edo atzerritarra izatea.
- Aurreko paragrafoan aipatutako ikasketetan Espainian matrikulatuta egotea.



- Eskola aseguruari dagokion kuota abonatua izatea.
- Ikasleak aseguru honen barnean sartzen diren edozein ikastetxetan lehen aldiz matrikulatu zela gutxienez urte bete dela egiaztatzea. Baldintza hau ez da eskatuko eskolako istripuetatik, familiako burua hiltzeak sortutako familiako ezbeharretatik eta tokologiatik eratorritako prestazioetarako.

Pertsona babestuak

- Eskola aseguruaren aplikazio eremuaren barnean daude Espainian honako ikasketak egiten ari diren 28 urte baino gutxiagoko ikasle espainiar guztiak:
 - Batxilergoa, 3. eta 4. DBH.
 - Lanbide heziketa: bigarren mailakoa, erdi mailakoa, goi mailakoa eta berezia.
 - Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea eta Batxilergo Bateratu Balioaniztasuna (ikasle errepikatzaileak).
 - Gizarte garantiako programak.
 - Ikastegi bateratuetako ikasketak.
 - Erdi mailako, goi mailako eta doktoregoko unibertsitate ikasketak
 - Goi mailako ikasketak musika kontserbatorioetan.
 - Goi mailako ikasketak dantza kontserbatorioetan.
 - Arte dramatikoa.
 - Teologia ikasketak Eliza Katolikoko goi mailako zentroetan.



- Helduentzako bigarren hezkuntzako bigarren maila.
 - Enpresetan praktikak egiten dituzten unibertsitate ikasleak.
 - Nagusiarora heltzeko prestakuntza programak.
- Era berean, aseguru honen babes eremuaren barnean daude Europako Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideetako ikasle nazionalak eta orokorrean, espainiarren baldintza berdinetan dauden ikasle atzerritar egoiliar guztiak aipatutako ikasketak 28 urte arte Espainian egiten baldin badituzte.

Estalitako arriskuak

- Eskolako istripua:

Eskolako istripuak asegurdunak ikasle egoerarekin zuzenean edo zeharka lotutako jardueretan jasandako gorputzeko lesioak barne hartzen ditu, hala nola, kirol ekintzetan, bileretan, ikasketa bidaian, praktketan edo karrera amaieran eta antzekoetan gertatutakoak, betiere jarduera hauek ikastetxeak antolatu baditu.

- Familia ezbeharra:

Ikaslearen etxean bat-batean gertatutako eta hasitako ikasketak jarraitzen uzten ez dion egoera da. Egoera hau familia-buruaren heriotzak edo familia hondamendi edo porrotak sor dezake.

- Gaixotasuna.



Prestazioak

Istripuko biktima den ikasleak honako prestazioak lortzeko eskubidea izango du:

► Mediku laguntza eta farmazia laguntza

- Iraupena:
 - Istripua gertatu den unetik medikuaren alta eta ezgaitasun deklarazioa jasotzen den arte, istripuak ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia eragin badu.
 - Istripua gertatu den unetik ikasketetera bueltatzeko egoeran aurkitzen den arte, urte beteko gehienezko epearen barruan, istripuak aldi baterako ezintasuna eragin badu.
- Mediku eta osasun zentro hautaketa:
 - Mediku eta osasun etxe laguntzaile edo itundutakorik ez balego, istripuak sortutako gastu guztiak ordainduko zaizkio ikasleari.
 - Behar bezala justifikatutako asistentzia urgenteen kasuan, ikaslea itundutakoa ez den zentro pribatu batera joan bada ospitalea aukeratzeko egoeran aurkitzen ez zelako edota itundutako zentrorra zegoen distantzia dela-eta, istripuak eragindako gastu guztiak ordainduko zaizkio ikasleari.
 - Lekualdaketa gastuak hil edo biziko kasuetan ordainduko dira bakarrik.
- Farmazia prestazioak doan dira.
- Mediku asistentziak honakoa hartzen du bere barne:
 - Sendatzeko internamendua eta ebakuntza kirurgikoa.



- Laguntzarako beharrezkoak diren protesi aparatu eta aparatu ortopedikoen hornidura eta berrikuntza.
- Sendatzeko beharrezkoa den errehabilitaziorako tratamendua.
- Diagnostikoa edo tratamendua egiteko beharrezkoak diren froga medikoak.

▶ Ezintasunagatiko kalte ordainak eta pentsioak

- Istripuak ikasleak dagoeneko hasita dituen ikasketak egiteko ezintasun iraunkor eta absolutua sortzen badu, 150,25 eta 601,01 euro bitarteko kalte ordaina ordainduko da. Zenbateko hau dagoeneko egin diren ikasketen denboraren eta lanbide jarduera burutzeko zeukan gaitasunaren murrizketaren arteko proportzionaltasunaren arabera finkatu da.
- Istripuak ikasketak burutzeko baliaezintasun handia eragiten badu eta ikasleak bizitzako funtsezko ekintzak burutzeko ezintasuna badu, urteko 144,24 euroko biziarteko pentsio bat jasoko du.

▶ Heriotzagatiko kalte-ordainak

- Istripuak heriotza eragingo balu, familiari 30,05 euro ordainduko zaizkio ehorzketa-gastuengatik.
- Istripua familia bizi ez den leku batean gertatuko balitz, gastu hauek 30,05 eta 120,20 euro artekoak izan litezke.
- Hildako ikasleak bere kargu emaztea, seme-alabak, 65 urte baino gehiagoko edo edozein lanetarako ezindutako aurreko ahaide zuzenak edo adingabeko edo edozein



lanetarako ezindutako anai-arrebak izango balitu, zenbateko horri 300,51 euroko kapitala gehituko zaio.

► Preskripzioa

Eskola istripitik eratorritako prestazioen eskaera egiteko ekintzak istripua gertatu eta urte betera bukatzen dira.

Bateraezintasunak

Eskola aseguruaren prestazioak bateraezinak dira eduki bereko eta antzeko arriskuetatik eratorritako edozein prestaziorekin, hauetara afiliatu direnak bien onuradun baldin badira eta aldi berean Gizarte Segurantzako erregimenen batean alta egoeran baldin badaude.

Prestazioak Gizarte Segurantzaren erregimenetik jasoko dira eta prestazio gehiago jaso beharko balira, Eskola Aseguruak ordainduko du diferentzia.

Kudeaketa eta eskaerak

► Non?

Aurkezpen eskaria edozein GSHAZtan eska daiteke:

- Prestazio ekonomikoak badira, eskaria aurkeztu den GSINaren Zuzendaritza probintzialak ebatziko du eskaria.



- Osasun prestazioak badira, osasun laguntza eman duen GSINaren Zuzendaritza probintzialak ebatziko du eskaria, ikaslea edo familiaren egoitza matrikulatuta dagoen probintzia zein den aparte utzita.

▶ Epeak

- Eskolako istripuak sortutako prestazio guztiak: urte 1.
- Osasun prestazioak mediku laguntzaren aurretik eskatu behar dira eskubidea onartzeko, kasu honetan salbu: medikuak egiaztatutako larrialdi kasuetan, 5 urteko epean aurkeztu daiteke.
- Eskolako istripuak sortu ez dituen ekonomia prestazioak eta ehorzketa gastuak. 5 urte.
- Familiako ezbeharragatiko prestazioak: 5 urte, 3 hilabeteko atzeraeginarekin.

▶ Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak

DOKUMENTUEN HAUEN JATORRIZKOA ETA INDARREAN DAGOENA ERAKUTSI:

- NAN edo Familia Liburua.
- Atzerritarrek, nortasuna egiaztatzeko agiria.

ONDOKO DOKUMENTUEN EDO EGIAZTATUTAKO FOTOKOPIAREN EDO ONDOREN EGIAZTATZEKO KOPIAREN AURKEZPENA:

- Unibertsitateaz kanpoko ikasleek, ikastegiaren ziurtagiria, burutzen ari den kurtsua eta espezialitatea, eta Eskola-Aseguruaren kuoten ordainketa zehazten dituenak.
- Unibertsitateko ikasleen kasuan, maila, ikasgaiak eta Eskola Aseguruaren kuotaren ordainketa jasotzen diren matrikularen inprimakiaren frogagiria.



- Aurreko puntuan zehaztutako dokumentazioa, eskaeraren aurreko ikasturteari dagokiona, urte bateko kotizazioa ziurtatzeko, eskolako istripua, familia-ezbeharragatiko prestazioa eta tokologia izan ezik (Eskola-Aseguruaren barne ez dauden azken kurtsoko ikasketak egin dituzten ikasleak baldintza honetatik kanpo geratuko dira).

a) Osasun-prestazioak:

1. Eskola istripuagatikoak:

- Istripu-agiria, eskaeraren 4. puntuan beteko dena.
- Bajaren mediku-ziurtagiria.

2. Kirurgia, tokologia, neuropsikiatria eta birika eta hezur tuberkulosia:

- Mediku-agiri ofiziala, osasun-laguntza emango duen fakultatiboaren izena, kide-zenbakia, zentroaren edo kontsultaren helbidea, espezialitatea, data eta ingresatuko den ospitalea zehazten dituen. Halaber, hala badagokio, diagnostikoa, errezetatutako tratamendua eta osatzeko beharrezkoa den gutxi gorabeherako epea zehazten dituen.
- aurreko ziurtagiria, hala badagokio, urgentzia medikoaren txostenaz ordezk daiteke.
- Neuropsikiatriarako, diagnostikoa DSM-III edo CIE/10 nazioarteko sailkapenen arabera, pazientearen egungo egoera, tratamendu farmakologikoa eta psikologo batek edo psikiatrak berak egingo duen terapia psikologikoa zehaztu beharko ditu psikiatrak.

3. Fisioterapia, erradioterapia, kobaltoterapia, erradiumterapia eta giltzurrun artifiziala: aurreko puntuan zehaztutakoaz gain, eskaera eragiten duen historial medikoa. Bertan, saioen zenbatekoa, hauen izaera eta tratamenduaren guztizko aurrekontua zehaztuko da.



Paragrafo honetako 2 eta 3 puntuetan bildutako prestazio guztien eskaera osasun-laguntzaren aurretikoa izan beharko da eskubidea aitortzeko. Betiere fakultatiboak ziurtatuta, urgentzia handia denean baino ezingo da 5 urteko epean aurketu.

b) Prestazio ekonomikoak:

1. Indemnizaciones por infortunio familiar: Familia Liburua eta familia ugariaren titulua, hala badagokio.

- Familiaburuaren heriotza: Heriotza-ziurtagiria.
- Porrota: auri edo porrotaren egintza eragilea egiaztatzen dituzten agiriak, baita gertatu zeneko data ere.
- Familia-ezbeharragatiko prestazioaren luzapena: aurreko ikasturtean egindako ikasgaien egiaztatzea, era honetan kurtsoaren aprobetxamendua egiaztatzeko.

2. Eskolako istripuagatiko ezintasunengatiko kalte-ordainak:

- Eskolako istripu-agiria.
- Medikuziurtagiria, prozesuaren eboluzioa eta behin betiko sekuelak, eta burutzen zituen ikasketen arabera, istriputuaren gaitasunaren murrizketa zehazten dituenak.

3. Istripuagatiko, eskolakoa zein ez eskolakoa, eta gaixotasunagatiko ehorzketak eragin gastuengatiko kalte-ordainak.

- Istripu-agiria (eskolako istripua denean baino ez).
- Gaixotasunagatiko heriotza denean, medikuziurtagiria, hildako kaltetuna gaixotasuna harrapatu zuen data osteko bi urteetan gaixotasun horren ondorioz hil dela eta ikasketekin jarraitzeko ezintasunak hil arte iraun duela zehazten dituenak.



elgoibar ikastola

Pedro Miguel Urruzuno Koop.



- Heriotza-ziurtagiria bai istripu bai gaixotasunagatikoa

Oinarrizko Araudia

- Ley de 17 de julio de 1953 (Jefatura del Estado), sobre el establecimiento del Seguro Escolar en España
- Real Decreto 1633/1985, de 28 de agosto (Presidencia), por el que se fija la cuantía de la cuota del Seguro Escolar.
- Orden de 11 de agosto de 1953 (Trabajo) por la que se aprueban los estatutos de la Mutualidad del Seguro Escolar

LITHERLANDera JOATEN DIREN IKASLE ETA IRAKASLEAK. Istripu poliza bat kontratatzen da EHiko ikaseguruen bitartez eta Lirtherlanden estantzia irauten duen bitartean bertara joaten diren gure ikasle eta irakasleei gerta dakiekeen istripuen asistentzia bermatzeko.